

N u !

www.10.1111.com



Lluís Llach kantariaren emanaldia, maiatzaren 8an



Andatza zain dugu

ALKARTASUNA KOOPERATIBA



Lehengo produktuez gain...

Orain:

Mermeladak

Dultzeak

Ukenduak

Lekorrak



Diabetikoentzako fruktosa dun mermelada!

Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14

E-mail: alkartasuna@fcae.org

Euskal Herriak



ZURE SINADURA

behar du

40.000 baietz!

SINADURA BILKETA

Lekua: Usurbilgo udaleko idazkaritzan

Apirilaren 29a, osteguna :11:00-14:30

Apirilaren 30a, ostirala :11:00-14:30

Maiatzaren 4a, asteartea:11:00-14:30

Maiatzaren 5a, asteazkena:11:00-14:30

Maiatzaren 6a, osteguna: 11:00-14:30

Maiatzaren 7a, ostirala: 11:00-14:30



LASARTE - USURBIL INSTITUTUA

HEZIKETA PUBLIKOĀ, KALITATEZKĀĀ ETA AURREĀKĀĀĀ

www.instilasarte.net

LOGSE BATXILERGOĀK (A eta D ereduak) (16-18 urte)

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

Aurrematricula:

Maiatzak: 3tik 7ra

HORNIKETA BERRI ETA GAURKOTUA


- Fisikako eta Kimikako laborategia
- Natur zientziako laborategiak
- Teknologiko bi gela
- Informatikako gelak
- e-gela mugikorra - Gimnasioa

BATXILERGOĀK:

Buenos Aires aldapa,1
Telf: 943 372277 - 372852
Faxa: 943 37 16 78
lasarte-bhi@instilasarte.net

ZIKLOĀK:

Urrieta bidea 2/g
Telf: 943 37 06 11
Faxa: 943 36 33 96
zikloak@instilasarte.net



HEZIKETA-ZIKLOĀK

Aurrematricula:
Ekainak 1etik 9ra

ADMINISTRAZIOA

- Administrazio-kudeaketa (Erdi mailakoa)
- Administrazioa eta Finantziak (Goi mailakoa)

MERKATARITZA

- Merkataritza (Erdi mailakoa)

INFORMATIKA

Informatika sistemen administrazioa
(Goi mailakoa)

ETENGABEKO FORMAKUNTZA

- Heziketa zikloak, eskaintza partzialak
- Hobe-tuzeko kursoak



MATRIKULA EPEA: UZTAILAK 1etik 7ra

ZERBITZUĀK:


- Zarautzik eta Donostiatik autobusak
- Orientabiko zerbitzua
- Liburutegia, Internet
- Heziketa er-erakundea
- Interekin kulturalak
- Praktika Europako Elkarteekin enpresetan

Txirrikitutik

2002ko urtarrilean ateratako argazki hau oso berria da. Baina ez bertan ageri den plaka. Noaua!k, Kale Nagusian Alkartasuna Nekazal Kooperatibako etxean (sindikatu bezala ere ezagutua) zegoen plaka honi ateratzeko astia hartu zuen erai-kuntza bota aurretik. Jakina denez, nekazarien kooperatiba berria Ugarteko industrialdean kokatuta dago eta sindikatu zaharreko eraikina etxe berriak egiteko bota zen.

Sindikatuako eraikin zaharra Alkartasuna Nekazal Kooperatibaren egoitza izan zen urte askotan eta horren testigantza jasotzen du argazkian ikusten duzuen plaka honek. Plaka hau nekazarien alkartasunak urrezko ezteiak egin zitueneko oroigarri gisa jarri zuten eraikineko aurrealdean, 1958ko ekainaren 24ean hain zuzen ere. Bertan hauxe irakur dezakegu: "USURBILGO NEKAZARI ALKARTASUN UREZKO EZTAIAREN OROIGARRIA 1908 GARAGARILAREN 24'EAN 1958". Beraz, begi-bistan da plaka honek dioen arabera, Usurbilgo Alkartasuna Nekazal Kooperatibaren sorrera 1908koa dela.

Gaur egun ordea, leku honetan etxe berriak eraiki dira. Dagoeneko sindikatuko etxe zaharraren arrastorik ez dago.



Egilea: Noaua!K.E., 2002ko urtarrila

Jabea: Noaua! K.E.

Kale Nagusia, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba Zaharra

Plaka ordea, etxea bota aurretik jaso zutela badakigu. Ugarteko eraikuntza berrian ez badut ikusi ere, ondo gordeta izango dutelakoan nago.

Zalao Arnaiz Ibareguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainar Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ _____ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

NAFARTARRAK TALDEA OSATU DA HERRIAN _____ 10. URR.

JEXUX ARTZEREN OMENEZ _____ 12. URR.

Duela bi urte zendu zen Jexux Artze. Iaz, bere lagunek, ekitaldi sorta ederra eskaini ziguten. Aurten, Lluís Llach kantariak bisitatuko gaitu.



ERRAUSTE-PLANTAREKIN BUELTAKA _____ 14. URR.

MAIATZAREN 2AN, ANDATZA EGUNA _____ 17. URR.

EUSKAL SOIN JARDUERAK NOAUA! TXIKIN _____ 18. URR.

EKITALDI GARRANTZITSUENAK _____ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Maiatzaren 2an egokitu da aurtengo Andatza Eguna

Zutabea !



Epaimahaikideen "lanak"

AINHOA AZPIROZ

Aurreko batean lehiaketa kurioso baten berri eman zuten irratiari: barre egiteko ipuinen lehiaketa. Debagoieneko herri batean antolatu dute aurreneko aldiz. Eta berehala epaimahaikideak etorri zitzaizkidan burura. Jendeak idatzitako ipuinak irakurtzen eta barrez lehertzen imajinatu nituen. Pentsa zer izan behar duen barre egiteko zazpi ipuin segidan irakurtzea! Tripako minez eta masailetakoa agujetekin bukatuko dute!

Tripako minez ez dakit, baina sabela beteta bukatzen dutenak lehiaketa gastronomikoetako epaimahaikoak izaten dira. A zer zorzea bakailaoa pil-pilean eltzekada baten atzetik beste probatzen egoten direnena; edo paella degustazioa egiten dutenena. Patea edo ezta epaitzen dituzten moko finekoak ere egoten dira. Nola bukatuko ote dute; nazkatua, asetuta ala postrea jateko gogoz? Beno, eta ardo, sagardo, txakolin edo dena delakoaren dastaketa egiten dutenak? Jakingo ote dute bukaerarako zein den hobereana? Nik uste, jaki kontuetan okerrena perretxiko lehiaketako epaimahaikoa izatea dela; zeren perretxikoekin egindako pintxoak probatu behar badira eta perretxiko pozointsuak daudela jakinda...

Horrelako kezkarik gabe arituko dira bertso txapelketetako epaimahaikideak. Horiak potoen, hankaluzeen eta hankamotzen kontaketa eta errimen eta doinuen aberastasunetan zentratuta edukiko dute burua, eta dena bertsoak irauten duen momentuan "detektatu" behar. Gimnasia artistikoko puntuaketa ematen dutenek bezala. Ariketa edo aktuzioa egin bitartean adi egon behar izaten dute, errepikaezinak izaten baitira mugimendu horiek.

Antzekoa gertatuko zaie zinemaldietako epaimahaikoei; pelikulak irauten duen bitartean begiratu beharko diete arretaz aktoreen lanari, gidoiari, musikari, argiztapenari eta abarri. Hala ere, ez dakit bertsoa bezala behin bakarrik ikusten duten ala gehiagotan. Adibidez, San Ferminetako edo inauterietako kartel lehiaketako lanik onena aukeratzeko egoten direnak behin eta berriro begiratu diote kartelari.

Makina bat katedradun eta doktore ere ibiliko dira doktorego tesiak epaitzen. Horretarako, epaimahaikideek 500 orrialde inguruko tesiak irakurri beharra izaten dute. Ez dirudi lan samurra denik. Aukeran jarrita, nahiago nobela erotikoen lehiaketa bateko epaimahaikoa izatea.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

40.000 baietz!

Datorren ekainaren 13an, euskal herritar guztiok, Euskal Herri osoan eta egun berdinean bozkatzeko aukera izango dugu.

Hauteskunde hauek Euskal Herria Europako Nazioa dela frogatzeko baliaut behar ditugu. Horren xedez sortu da Herritarren Zerrenda (HZ) herri hautagaitza.

HZk ez du beste eragile politikoak ordezkatzeko borondate politikorik, ezkertzaile eta abertzale diren euskal herritarrei aukera irekia eskaintzea da asmoa. Herritarren Zerrenda gizarteko hainbat sektoretako 64 lagunek osatuko dute. 54 Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Arabakoak eta Nafarroakoak dira, eta 10 Zuberoakoak, Nafarroa Beherekoak eta Lapurdikoak. Bi botopaper izango dira, Iparraldean bata eta Hegoaldean bestea, baina biak Herritarren Zerrenda izenburupean aurkeztuko dira.

Zerrenda hori nortzuek osatuko duten ez dago oraindik zehaztuta. Maiatzaren 8an Bilboko Casillan antolatu den ekitaldi nazionalean emango da horren berri.

Herritarren Zerrenda osatzeko, ordea, firma bilketa izango da Euskal Herri osoan. Izan ere, Espainiako legeariak herri hautagaitza osatzeko milaka firma legal eskuratzeko eskatzen du eta hori egitera goaz, maiatzaren 8a bitartean. Frantziak horrelakorik eskatzen ez badu ere, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan sostengurako izenak jasoko dira, maiatzaren 15era arte.

Usurbilera etorriz, HZ herri hautagaitza osatu ahal izateko, Usurbilgo udaleko idazkariaren aurrean eman behar dugu sinadura. Hona hemen sinatzera joateko egunak:

- Apirilaren 29a, osteguna, 11:00etatik 14:30etara.

- Apirilaren 30, ostirala, 11:00etatik

14:30etara.

- Maiatzaren 4an, asteartea, 11:00etatik 14:30etara.

- Maiatzaren 5ean, asteazkena, 11:00etatik 14:30etara.

- Maiatzaren 6an, osteguna, 11:00etatik 14:30etara.

- Maiatzaren 7an, ostirala, 11:00etatik 14:30etara.

Sinadura emateko, Usurbilen erroldaturik egotea ezinbestekoa da eta N.A. eramatea. Zure sinadura behar-beharrezkoa dugu, guztira 40.000 sinadura lortu behar baititugu.

Halaber, kanpainako gastuei aurre egin ahal izateko, zure laguntzatxoa ere ezinbestekoa dugu. Zerbait aportatzeko gogorik baduzu, hona hemen kontu korronte zenbakia: Euskadiko Kutxa

3035 0058 39 0581182175

Usurbilgo Ezker Abertzalea

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Nekazaritza jarduera handia

Markakoa da aurtengo eguraldia. Aste Santuan, udaberrian sarturik, urrutira joan gabe elurra ikusi dugu berriro eta geroztik euria nagusi. Baserritarrak aspaldian ernegatuta dabilta zelaian lasai lanean aritu ezinik. Joan den astean eguzkia azaldu zenean, aukera aprobeztatuz nekazaritzako jarduera handia izan zen auzoko erriberan.

Lurrak goldetzen jardun zuten, sailak ondo prestatuz gero landareak sartzeko. Zenbait baserritarrek, aspalditik egina behar zuten arren, eguraldi txarra medio, oraindik patata landatzeko daukate. Orain landatu beharko dute, eguraldia ez bada asko okertzen. Urtea dijoan bezala zeinek jakin ze joera hartuko duen aurrerantzean. Gainontzeko baserritarrek piperrak ereiteko ari dira lurrak moldatzen, beraz aurten ere udaran nahiko piperrak izango ditugulakoan nago.

Bestalde, Usurbilgo Udalak 2003ko urtean deialdi bat egin zuen bakoitzak bere etxe eta baserritan keramikazko plaka eduki ahal izateko. 20 etxek erantzun zioten deialdiari eta plaka jartzera animatu, tartean auzoko baserriak. Udalarekin sinatutako hitzarmen baten bitartez, keramikazko plaka hauek egitea.

Buztinzulo Zeramika Taldearen lana izango zela erabaki zen. Etxe edo baserri jabeak ez zuten gasturik egin behar, plaken gastua udalaren kontura izango zen. Plaka hauek azken ikutua gure auzoan jasotzen dituzte, Santi Illaramendi buztinlariak daukan lokaleko labean, guk *kaseta* deitzen diogun etxean. Bagenekien plakak moldatuta zaudela, orain berriz egun batzutan udaleko langileek eskatutako bakoitzaren etxean jarriko dituzte. Beraz laister dira auzoan plakak jartzera.

Beste kontua, apirilak 24an Akerra gaztetxean kontzertua izan zen Lasarte-Oriako hiru taldekin: Txakurrak, Zona Mortuaria eta My Own Truth. Gau giroa ederra egin zuen eta jende ugari hurbildu zen.

Bukatzeo ez ahaztu datorren igandean, maiatzeko lehen igandea izanik, Andatza Eguna dela. Aukera paregabea goiz partea mendi tontorrean pasatzeko. Giro polita biziko da eta pena mereziko du gora igozteak. Hemen auzoan ere ziur asko nabarmenduko dugu. Gehienetan soziedadean, aurretik Andatzen egondako lagunak izaten dira bazkaltzen. Eguraldia lagun izanez gero berriz kanpoko mahaietan bapobapo.

“Zazpi Gezur Txiki”

Gezurra badirudi ere, luze egin zait azken Galdiz kronika idatzi nuenetik honako epea eta orain horretarako beta dudanean ez datorkit ezer burura.

Betiko kronika informatibo horietako bat idaztekoa nintzen, baina azken momentuan aurreko asteburuko antzerkitxoaz aritzea otu zait.

“Zazpi Gezur Txiki”, hala zuen izena antzerki komiko honek. Doanekoa zen eta nire lagunak “gonbidatu” nituen Udarregiko aretora. Hamarretarako presaka gerturatu ginenean, hiru lagun besterik ez genituen aurkitu. Piskanaka jende gehiago gerturatu zen eta ia aretoa betetzeraino heldu ginen. Lotsagarri samarra iruditu zitzaidan hain jende gutxi azaldu izana, baina bere txikitasunean gustura izan ginen.

Ni ez naiz inongo antzezpen-kritikoa, baina hortara saiatuko naiz. Oso gustora egon ginen, baina luze egin zitzaigun. Guztiak egitura ber-



bera zuen: kontakizun txiki bat kantu batez lagunduta. Egia esan, horrek ez zuen inongo akatsik, baina izenburuarekin zerikusirik ez zuen eta lotura egin nahian kontakizunean zentzurik ez zuten esalditxoak txertatzen zituzten. Hau alde batera utziz, atsegina egin zitzaidan ikuskizuna, baina ez nuke errepikatuko.

Horrelaxe agurtuko naiz. Hurren arte!

EKIÑE
OLAIZOLA

Kaleberri

Andatza Eguna

Andatza Eguneke festa berpizteko Aukera berri bat dugu maiatzaren 2an. Iaz bezalaxe, festa bi herriren artekoa izango da. Zizurkildarrak eta usurbildarrak batuko ditu Andatzak. Azken hilabeteotan, Andatza Mendizale Elkartea, Zizurkilgo Ziotza Kirol Elkartea eta bi herrietako udal ordezkariak aritu dira antolaketa batzordean.

Eguraldia ona bada, arazorik ez da izango. Eguraldi txarra egiten badu, ordea, egitaraua Zizurkilgo frontoian garatuko da. Kasu horretan, antolatzaileek autobusa jarriko lukete Zizurkildik Usurbila.

Azkenik, ohartxo bat. Andatza elkartekook maiatzaren 30ean antolatuta genuen Aralarko itzuliaren hirugarren etapa: Lizarrusti – Lakuntza. Kontua da etapa hau egunez aldatu dugula, eta NOAUA! bidez herritar guztiei jakinaraztea gustatuko litzaziguke. Irteera hau ekainaren 6an egingo dugu eta parte hartu nahi duten denek zabalik dago.



Kalezar



ANDONI
UDABE

Argi ibili

Igaro zaizkigu Aste Santuko oporrak eta Inabarria izan da egun hauetako isiltasuna eta jendearen hutsunea: batzuk Benidorm edo Salou aldera joango ziren, beste batzuk "a mi pueblo" esan ohi duten bezala; besteak elurretan gozatzera... bakoitzak ahal duen moduan. Egun batzuetako atsedena nork ez du gustoko! Beste batzuk mendi irteeraren batekin konformatuko ziren, nahiz eta eguraldiak asko lagundu ez. Esaerak dioten bezala, "gustoko tokian aldapik ez". Orain berriro ikasketak eta bakoitza bere lanean, hurrengo oporrak iritsi arte.

Gaiaz aldatuz; argi ibili auzotarrok! Lehengo asteen susto ederra hartu bainuen. Beti bezala, utzikieriaz, kargatuta edo presaka gabiltzalako, kotxea espaloian utzi ohi dugu eta neuk ere horixe egin nuen. Eta nere sustoa udaltzaina isuna jartzen ikusi nuenean! Korrika jeitsi kotxea kendu eta barkatu egin zidaten, inori ez



baitzaigu gustatzen horrelakoetan xoxak gastatzerik.

Ea ondo errespetatzen ditugun aurrerantzean seinaleak eta tokiak aparkatzerakoan, eta bide batez, behekaldean bizi garenok, Maspildegiko aurreko aparkalekuan uzteko ohi-tura hartzen dugun.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI

ZALOA
LEOZ

Santutenea

Zaharrak nagusi

Azken aldi honetan Zaharren Egoitza dugu Amintzagai gure auzoan. Aurreko ale batean irakurri ahal izan genuen lapurreta egin zutela, baina gaurkoan ez da horrelako berri txarrik. Oraingo honetan auzoko helduek ohiko zereginei utzi eta kartetan aritu beharrean aukera ederra izan dute informazioa jasotzeko eta norberak bere ondorioak ateratzeko.

Pasa de asteen gure auzoko Zaharren Egoitzan hitzaldi bat izan genuen. Bertan bildu ziren Pablo Mendia hizlari zutelarik. Pablo Mendiak zahar edo adinduen gaixotasunak izan zituen mintzagai. Esan beharra dago horrelako hitzaldiak interesa pizten dutela eta gure auzoan ere jendeak gustora hartzen dituela era honetako solasaldiak.

Gaiaz aldatuz, sagardotegiko mugimentuak ere bukatu zaizkigu. Ederki nabarmentzen da gauetan izaten zen jendearen emana bukatu dela. Nor ez da etorri aurten ere gure auzoko sagardotegira? Denak izan dugu zitaren bat bertako sagardo, bakailu, txuleta eta gazta probatuaz. Egia esan, ez dugu sagardotegikoekin hitz egin baina kanpotik ikusita, balorazio positiboa egingo genuke aurtengo sagardo



garaiari dagokionean.

Aurtengo txotx garaiak alde egin dionak datorren urterarte ez du izango aukerarik sagardotegian bertan dastatzeko, baina esan beharrean gaude laster, Sagardo Eguna izango degula Usurbilen eta nahiz eta ez izan Txotxetik edateko aukerarik, nahikoa sagardo izango dugu bertan. Kontuz ibili beharko dugu egun horretan zeren, aurtengo sagardoak graduren bat gehiago duela entzun baitugu. Pasaden urteko beroak direla eta, sagarra ere bere onetik atera eta azukre gehiagokoa izan omen dugu. Badakizu, ondo pasa baina kontuz mozkortu gabe.

Lurra lantzen


EIDER
JAUREGI

Urdaiaga

Udaberriarekin batera, eta eguraldi ona lagun, gure inguruetako baserritarrak hasiak dira lurra lantzen. Hazia ereiten duenak uzta jasotzen omen du eta etxeko jaki goxoak udan jasoko badira, orain erein egin behar.

Honetarako, lehenbizi lurra jirtazen da abonoa nahasteko, ondoren errotazio sistema erabiliz, lur zati bakoitzean zein produktu ereingo diren erabaki, ahal den neurrian ereiten ditugun produktuak lekuz aldatzen joango dira, tartean lur zati bat ezer erein gabe utziz, deskantsuan.

Lurra lantzeaz gain, inguruetako txoko gehienak lorez jantziak ikusten ari gara. Gero eta gehiago dira auzoko lore dendara hurbildu direnak etxe inguruak lorez jatzeko asmoz etorri direnak. Baita ere eguraldi ederra gozatuz parke inguruan egun pasa ederrak igaro dituztenak ere. Eta zuek ere nahi izanez gero, badakizue paseo eder bat eman nahi izanez gero hurbildu bertara.



Arnasakoak Aginagan

Maiatzera iritsi gara eta hortxe gainean dugu ekaina. Ekainean erabakiko omen du Mankomunitateak non kokatuko omen duen errauskailua. Zubietako jendea larritzen hasita omen dago, eta aginagatarrak ere hala egon beharko genuke. Hiru kilometrotara bizi baikara.

Apirilaren 22an, ostegunez, Urnietako errauskailu edo intzineradoraren kontrako Arnasa taldekoek hitzaldia eskaini zuten Aginagako apaiz etxean.

Zubietako jendea ia-ia gehiago zegoen bertara Aginagatik bildu ginenok baino.

Ematen du ez dugula jabetu nahi zer datorrigun gainera. Urnietako Arnasakoei entzun eta gero, han bildutako bat baino gehiagori tripakomin galanta jarri zitzaigun. Zaborren arazoari buelta emateko aukera bakarra bertziklatzea izan behar duela erakutsi ziguten han garbi. Orain arte egiten duguna baino gehiago egin beharra daukagu derrigorrez



gure hondakinak bertziklatzeko.

Azken kronikan konpost egiteari buruz idatzi nuen. Oraingoan argazki bat ekarri dut konposta egiteko ontzi berezi bati aterea. Pare bat familiak egunero etxean sortzen dituzten hondakin organikoak (fruta eta berdura azalak, arraultz azalak, etabar) bildu eta lur ederra sortuko du. Ontzi honek 100 euro inguru balio du, eta horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero NOAUA!n bertan jaso dezake.

Aginaga



**LONTXO
ZUBIRIA**

Plaza libreko denboraldi berria

Iritsi da udaberria. Suposatzen da, aro berri honekin, eguraldiak ere beste itxura bat hartu beharko lukeela, nahiz eta badirudi aurten go udaberria, nahiko nagikeriaz azaltzen zaigun eguraldi ona ekartzeko garaian.

Zubietako udaberriak, beste elementu bat ekartzen digu gure herrira: plaza libreko denboraldi berria, gure pilota-jokamolde zaharretan. Izan ere, udaberrian hasten baitira errebotte eta joko garbiko txapelketak. Urteak joan urteak etorri, Zubietan Pilota Elkartekoak lanean dihardute garai honetan, gure aintzineko joku zaharrak galdu ez daitezten, eta aurten ere horretan jarraituko dugu. Lehendabiziko txapelketa, Iparraldekoa izango da gure pilotarientzat. Errebotean, ekipo bat arituko da: bi partidu izango dira Zubietan, maiatzaren batean lehenbizikoa eta maiatzaren 30ean, bigarengokoa. Bietan joango dira iparraldera, api-

rilaren 25ean eta maiatzaren 23an. Etxeko partiduetan, Atarratze eta Ustaritzeko ekipoak izango ditugu bisitari.

Joko garbian, lau ekipo irtengo dira aurten; bi nagusien mailan eta bi gazteen mailan, partida ugari jokatuko dituzte, larunbatetan normalean. Txapelketaren finalak, uztailearen erdian jokatu dira, beti ere, Iparraldeko plazetan. Errebotean, lehen mailakoa uztailearen 11n izango da Hazparnen, eta bigarren mailakoa, uztailearen 14an Donapaulen. Joko garbikoak, uztailearen 17 eta 18an izango dira, Angelu eta Atarratzen. Angelukoa lehen mailako izango da eta Atarratzekoa, berriz, bigarengokoa.

Bai Iparraldean, bai eta Hegoaldean ere, errebotteak eta joko garbiak garai hobeak eza gutu ditu. Horregatik animatzen dizuet zubietarroi eta noauazaleoi zubietako plazara etortzea, errebotte eta joko garbiaz gozatzera.

Zubietan



**MIKEL
BENGOETXEA**

“Nafartarrak”, herrian sortu den talde berria

Kultur arloan aritzeko xedez osatu da Nafartarrak izeneko taldea. Maiatzaren 14rako, esate baterako, “Amaren Alabak” taldearen emanaldia antolatu dute. Zuberoako sei kantari gazte biltzen dira ikuskizun horretan, baina Udarregiko saioan Zumarte Musika Eskolak ere hartuko du parte.

Nafartarrak taldean topatu ditugu Lontxo Zubiria eta Iñaki eta Jexux Agirresarobe anaiak. Azken honek argudiatu digu taldearen izenburua: “Nafartarrak izenarekin nafartasuna aldarrikatu nahi dugu. Denak Nafarroatik gatzela; hori defendatu nahi genuke”.

Maiatzaren 14ko emanaldiaren aitzakiarekin, taldeko hiru kide hauekin bildu gara. Jexux Agirresarobek adierazi digun moduan, taldearen ibilaldia hitzaldi batekin hasi zen: “duela sei hilabete antolatu genuen hitzaldian *Nabarralde* aldizkaria aurkeztu genuen herrian”. Era xumean bada ere, emanaldi txikiekin ekitaldi herrikoiak burutzeko asmoa dutela adierazi digute. Halaber, taldearen izaera irekia dela ere aitortu digute. Beraz, laguntzeko prest dauden guztientzat ateak irekita daude.

Santixabeletako Jai Batzordean parte



“AMAREN ALABAK” IKUSKIZUNAK JAKINMIN HANDIA PIZTU DU ZUBEROAN.

hartzen ari dira Nafartarrak taldekoak. Uztailaren 4an, Tuterako Zanpanzarrak eta euskaraz aritzen diren bi jota-kantari ekarri nahi dituzte.

“ELKARTASUNA...ETORKIZUNA” FESTA TUTERAN EGINGO DA

“Elkartasuna... etorkizuna” festa, aurren, irailean ospatuko da baina Tuteran. Han ere izango dira Nafartarrak taldekoak. Aipatzekoa, halaber, Urdiñarbeko Bilxoküa taldearekin lagun hauek duten harreman estua; aurrerantzean ere mantendu nahi dutena.

“AMAREN ALABAK”, KANTU IKUSKIZUNA

Zuberoako 6 kantari gazte biltzen dira ikuskizun honetan: Lüxi Agueraray, Mainer eta Graxi Bedaxagar, Arantxa Camus, Maika Etxekopar eta Ihitz Iriart. Emanaldi honek jakinmin handia piztu du Zuberoan. Udarregi Ikastolako aretoan arituko da maiatzaren 14an, iluntzeko 20:00etan hasita.

Santixabel Bertso Paper Lehiaketa ere zabalik

Bota Punttuba Bertso Eskolak Santixabel Bertsopaper Lehiaketaren XXVIII. edizioaren oinarriak plazaratu berri ditu. Ekainaren 26an amaituko da bertsoak aurkezteko epea. Bi hilabete geratzen dira, beraz, oraindik bada bertso ale batzuk idazteko denbora nahikoa.

GAI LIBREA

- Lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak usurbildarra izan behar du.

- Lanak, 2004ko ekainaren 26a baino lehen, honako helbide honetara bidali: Usurbilgo Udala

(XXIII. Bertsopaper Lehiaketa)

Joxe Martin Enparantza

20170 Usurbil

- Lanek inoz argitaratu gabeak izan beharko dute.

- Sariak honako hauek izango dira:

1. 180 euro eta txapela
2. 120 euro
3. 60 euro

- Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe utz daitezke.

- Lanek, gutxienez, 8 bertso beharko dituzte; eta gehienez, 10.

- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak.

- Epaimahaiaren erabakia 2004ko uztailaren 3an jakingo da jaietako bertso saioan.

Martxan da Santixabeletako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa

Usurbilgo Udalak Santixabeletako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa jakinarazi berri du. Lehiaketa honetara norbanakok zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun. Nahi adina lan aurkez daitezke. Lehiaketa irabazten duenak 500 euroko saria jasoko du.

Egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua. Jaietako egitaraua elebiduna izango da.

Lana euskarri informatikoan aurkeztu behar da, zuzenean inprimategira eramateko moduan. Diseinua egiterakoan, kontuan izan behar da, argitalpenak, Udalak horretarako duen aurrekontura egokitu behar duela.

Erabakia hartzeko orduan, garrantzi handia emango zaio, besteak beste, egitaraua eraz irakurtzeko modukoa izateari.

Bi gutunazal aurkeztuko dira itxita eta egilearen izengoitia agerian dutela. Batean, diseinu proposamenaren bi kopia eta CDa egongo dira; bestean, egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia.



JAIETAKO DISEINU LEHIAKETA IRABAZTEN DUENAK 500 EURO JASOKO DITU.

EPAIMAHAIA, JAI BATZORDEA

Epaimahaia Usurbilgo Jai Batzordeak berak osatuko du. Lana argitaratzerakoan epaimahaia aldaketak egin ditzake. Epaimahaia ikusten badu aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez dutela, saria eman gabe gera liteke. Aurkeztutako lanekin Udalak erakusketa antola lezake.

LANA NOIZ ETA NON AURKEZTU?

Lana maiatzaren 28a baino lehenago ekarri behar da Usurbilgo Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzura. Argibide gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 943 371 999.

ARGENTINARA JOAN NAHI AL DUZU?

Necochea, Buenos Airesetik 500 km iparraldera dagoen herria da. Bertako Euskal Etxekoek Euskal Herriko gazteekin harremanak egin nahian elkartruke moduko bat antolatu dute. 18 eta 30 urte bitarte badituzu, euskararen, euskal musikaren, euskal dantzaren, euskal gastronomia eta euskal kirolaren inguruko ezagutzarik baduzu, eta Argentinara joan nahi baduzu, hauxe izan daiteke zure aukera. Ez da titulurik eskatzen, esperientzia edo ezagutza eta erakustera joateko gogoia izango dira kontuan hartuak.

Hori bai, joan nahi duenak bidaia ordaindu beharko du; baina Necocheako Euskal Etxeak alojamentua eta pentsioa eskaintzen du, taillerretan parte-hartzaile izatearren.

Eskaintza 2004ko uztaila eta abuzturako da. Egonaldiak gutxienez 2 astekoak eta gehienez 30 egunekoak izango dira.

Izena emateko azken eguna: maiatzaren 9a, igandea.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Euskadiko Gaztediaren Kontseilura zuzendu eta Ainhoa Abendañoren galdetu:

Telefono zenbakia: 944 436 143
e-posta: partaidetza@egk.org

Belar-bolak egiteko zerbitzua, berriz ere martxan

Orain dela hiru urte, Behemendi Landa Garapenerako Elkartek belar-bolak egiteko zerbitzua martxan jartzea erabaki zuen. Aurten ere, zerbitzu hau eskainiko da baina beste makinista bat izango da eramango duena, eta zerbitzua ahalik eta osatuena izan dadin, honako baldintzak hauek zehaztu dira.

ESKATUTAKO LANAK BI ERATARA ORDAINDUKO DIRA:

- Orduko. Rotoenpakadora: 31,88 euro. Enzintadora: 28,7 euro.
- Bolako. Plastikoa, soka eta mante-

nimendua: 4,31 euro.

ORDAINKETA

Ordainketa makinistari berari ordainduko zaio eskatutako lanak bukatzerakoan.

PRESTAKETA LANAK

1.- Makinista iristen denerako belarra mozturik egon behar du, hau da, makina lanean hasteko prest. Makinista baserrira iristen den momentutik aurrera hasiko da kobratzen.

2.- Gutxienez bi ordutako lana egingo da; nahiz eta denbora gutxiago pasa lan gutxiago sortu delako, bi orduak

kobratuko dira. Hau gerta ez dadin, aurretik deitzea gomendatzen da.

Makinistaren eskubideak honako hauek dira:

- a.- Makinistak bere traktorea jartzen du lan honetarako.
- b.- Arrisku handia duten lanak ez onartzea erabaki dezake.
- d.- Lana antolatu eta dena jaso behar izango du.

Makinista Usurbilgo Lartzandieta baserriko Koldo Huegun izango da, eta zerbitzu eskaera egiteko telefonoz deitu behar zaio aldezturik: 645 735 750 / 666 607 447.

Jexux Artze oroitzuz

Hitzaldia, Lluís Llachen kantaldia eta txalaparta festa

Jexuxi merezitako omenaldia eskaini asmoz osatu zen Jexux Artze Taldea. Heriotzaren lehen urteurrenean aurkeztu zen taldea. Hasieran pentsatutakoak baino gehiago izan ziren antolatu ziren ekitaldiak. Gainera, Jexux Artze Taldearen ahaleginak uste baino oihartzun handiagoa izan zuen etxean zein kanpoan. Jendeak ondo baino hobeto erantzun zuen eta omenaldia ederra izan zen. Horri esker, ia zoko saiakerak jarraipena izango du aurtengo maiatzean, Jexuxen heriotzaren bigarren urteurrenean.

Hiru ekitaldi nagusi biltzen ditu aurtengo egitarauak. Iaz *Ez Dok Amairu* erakusketaz gozatzeko aukera izan genuen. Bertan, Kataluniako *Nova*



LLUIS LLACH KANTARIAK KATALUNIAKO POETAK EKARRIKO DITU GOGORA MAIATZAREN 8KO SAIDAN.

Canço fenomenoaren berri ematen zitzaigun. Belen Oronoz ikerlariak, garai huraz hausnartu zuen "Gazteria berria, kantagintza berria" liburuan. Horri buruz hitzaldi interesgarria eskainiko du maiatzaren 4an. Maia-

tzaren 8an, berriz, Lluís Llach kantaria izango da protagonista nagusia. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Aurretik, txalapartariak eta albokariak alaituko dute herria, 18:30ean hasiko den saioarekin.

"Poetes" izeneko lan berria aurkeztera etorriko da Lluís Llach kantaria

Lluís Llach kantariak 19 urte zituen "Els Setze Jutges" kultur mugimenduarekin bat egin zuenean. Handik gutxira, "Nova Canço" mugimenduko ikur nagusietako batean bilakatu zen. Honi esker, garaikide izan zen "Ez dok Amairu" taldea gertutik ezagutzeko aukera izan zuen. Orduetik datoz Mikel Laboa eta beste hainbat euskal musikarirekin dituen loturak.

Frankismoaren amaieran, erbestea ezagutu zuen. Paris hautatu zuen bizitoki eta lau urtez Kataluniatik urruti bizi behar izan zuen. Transizioan erentsura ezagutu zuen. Baina sormena garai berrietara egokitzen asmatu zuen eta garaikide izandako beste artista

batzuk ez bezala, Lluís Llachek Kataluniako kantagintzaren ikur nagusietakoa izaten jarraitzen du.

Llach arlo sozialean nabarmendu ohi den musikari horietakoa da gainera. Azken bolada honetan, "Plataforma en Defensa de l'Ebre" giza mugimenduen ekitaldietan ikusi digu.

KATALUNIAKO IDAZLEEN OMENEZKO SAIDA

Usurbilen eskainiko duen jaialdian, "Poetes" izeneko ikuskizuna taularatuko du. Urtarrilean, Bartzelonako Apolo aretoan eskaini zuen lehen aldiz poeta katalanen omenez osaturiko ikuskizun hau. Apolon eskaini zuen emanaldia zuzenean jasoa izan zen eta berriki CDn eta DVDn argitaratua izan da.



LLUIS LLACH KANTARIAREN SAIDA 22:30EAN HASIKO DA.

SARRERAK NON?

Kontzertu honetarako txartelak 18 euro balio dute (15 euro alde aurretik erosiz gero) eta jada salgai dira honako puntuetan: Lizardin, Mahukan, Oiardon, Txirristan, Telekutxan (943 411 200), Servikutxan, Interneten (www.begira.com).

Belen Oronoz: "Ez dok Amairu eta Els Setze Jutges transizio demokratikorako zubitizat har daitezke"

Frankismoaren garai ilunean, bi kultur-mugimendu nabarmendu ziren. Katalunian, *Els Setze Jutges*; Euskal Herrian, *Ez dok Amairu*. Bi mugimenduen loturak ikertu zituen Belen Oronozek duela bost urteko liburu batean. Horri buruz arituko da maiatzaren 4an eskainiko duen hitzaldian.

NOAUA! Kultur ikuspegitik, transizio demokratikorako zubi nagusiak izan ziren bi mugimendu horiek, ezta?

Belen Oronoz. Mundu mailan sortu zen Kantagintza Berriaren mugimendua, garai eta egoera jakin bati loturik sortu zen, hirurogeigarren hamarkadan eta orduan airean zebiltzan berrikuntza ideologikoen, aldaketan, itzalean.

Estatu espainiarrean, 1959 aldean beren ahotsa entzunarazten hasi ziren kantari "ofizial" engandik berezita, errejimen frankistaren aurka berpizkunde kulturala, eta zenbaitetan linguistikoa, aldarrikatzen zuten zenbait talde jaio ziren, "Els Setze Jutges" taldea Katalunian (1961) edota "Ez dok Amairu" Euskal Herrian (1966).

Taldeok Gerrate Zibilak, lehenik, eta Frankoren diktadurak, ostera, zapuztutako herri nortasuna berreskuratzea zuten helburu eta, hortaz, letra konprometituak abesteaz gain, herri kantutegiak ustiatu eta sorkuntza berriko doinuak ere, modernoagoak, ematen zituzten aditzera.

Honekin guztiarekin esan nahi dut, mugimenduok garaiarekin sortu zirela, egoera jakinek eraginda, eta, era berean, ingurune horrek ekarri zuela beren desagertzea. Talde kataluniarra 1967 inguruan desegin zen, hamasei ("setze") kantarien kopurura iritsitakoan; Nova Cançó mugimenduaren motore-lana bete zuten eta guztia martxan jarri ondoren, naturalki erretiratu ziren (hasierako partaideez ari naiz, beste askok oraindik aktibo dira eta, Lluís Llach-ek adibidez).

Euskal taldea beranduago desegin zen, 1972 partean, era desberdinean. Gizartea aldatzen ari zen, diktadura amaitzeko ez zen urte asko falta eta aldaketak nabaritzen hasiak ziren; taldeok Kantagintza Berriaren mugimenduak eragin zituzten, hau da, beren desagertzearen ostean hainbat aire berriko kantarik jarraitu zuten

lanean, herriaren ahots izatearen konpromisoan.

Errejimena bukatzean ahots gehienak ixildu egin ziren, eta hala egin ez zutenek beste ildo batzuei helduko zieten. Gauzak horrela, "Ez dok Amairu" eta "Els Setze Jutges" transizio demokratikorako zubitizat har daitezke, lekukoa iragan zuten talde aintzindarizat.

N. "Ez dok Amairu", euskaldunontzat, XX. mendeak eman zuen kultur ondare preziatuenetakoa da. Katalunian ere horrela ikusita dago Nova Canço Catalanaren jardura?

B. O. Denak diktaduraren atzaparpean egon arren, Katalunia eta Euskal Herriaren egoera politikoa ezberdina izan da, eta hala izaten jarraitzen du.

Hemen borroka armatuak egoeraren gogortzea zekarren eta, ondorioz, gure kantarien zereginak beste ñabardura batzuk hartu zituen. Herria mintza ezin zitekeen garai hartan, kantarion ezarrietatik irteten zen haren ahotsa, beraiek egiten zuten ordezkari lana, eta zentsuraren guraizeek murriztutako kantaldi haietan oihuak, proklamak eta sentimenduak airean ibili ohi ziren.

Hala izanda, eta herrialde bakoitzak bere testuinguru zehatza izan duela abiapuntu hartuta, ez dut zalantzan jartzen biezkat kantagintza mugimenduon ekarria ondare kultural oinarritzakoa izan dela; haiek hasi zirelako dira gaurkoak, ezin litelke bestela ulertu.



TXALAPARTAREN DOINUA BERRESKURATZEN LAN AIPAGARRIA EGIN ZUTEN ARTZE ANAIEK.

N. Iaz "Ez dok Amairu" erakusketa bisitatzeko aukera izan al zenuen? Gustukoa izan al zenuen?

B. O. Bai, Jesus Artze Taldeak luzatu zidan gonbidapena eta zoragarria iruditu zitzaidan. Egungo gazte askok ez dute orduan gertatutakoa ezagutzeko aukerarik izan - nik ere ikerketa-lantxo honi esker gauza ugari jakin ahal izan nuen -, eta haientzat oso aberasgarria izan zelakoan nago.

Garrantzitsua da erroen bila abiatzea, guztia hobeto ulertzeko, gure kulturaren altxorak ezagutaraztea. Agur bero bat luzatzen diet hemendik Jesus Artze Taldekoei eta zeregin horretan aurrera jarraitzea animatzen ditut.

MAIATZAK 4, ASTEARTEA

"Gazteri berria, kantagintza berria" hitzaldia, Belen Oronozen eskutik

Belen Oronoz euskal filologian lizentziatua da. 1998an Euskal Kantagintza Berria eta Nova Canço Catalanaren arteko harremanari buruzko ikerketa-lana egin zuen. Lan hori "Gazteri berria, kantagintza berria" liburuan jasota geratu zen.

Jexux Artze Taldearen eskutik, Belen Oronozek 60. hamarkadako mugimendu horren ardatzak azalduko ditu hitzaldi batean. Maiatzaren 4an, Udarregi Ikastolako aretoan, arratseko 19:30ean hasita.



BELEN ORONOZEK
UDARREGI IKASTOLAN
ESKAINIKO DU HITZALDIA.

20 plaka berri jarriko dira egun hauetan

Iaz, Udalak, etxe zahar eta baserriei zeramikazko plakak jartzeko deialdia helerazi zien. Kanpaina honekin, bereziki, etxe-izen zaharrak ezagutarazi nahi dira.

Baina ahalegin hau aspalditik dator. Usurbilgo Udalak 1990ean herriko toponimia lana egin zuen. Toponimo horiek normalizatu eta hedatzeko, Udalak, 2000. urtean, Buztinzulo Zeramika Taldearekin hitzarmena sinatu zuen zeramikazko plaka hauek egiteko.

Lau urte hauetan Buztinzulok, guztira, 55 zeramikazko plaka egin ditu. Orain arteko baserrien izen hauek pasa dira Buztinzuloko labetik: Portalea, Etxe Alai, Artxuita, Arotzenea, Agerre Aundi, Enbil-Enea, Villa Pilar, Itxasku Berri, Berreartzenea, Kontseju Txiki, Paris, Paris Berri, Arruenea Berri, Aritzeta,

Altunanea, Sutegi Berri, Berritza Barrena, Portu, Zabalea, Markos Enea, Urdaiaga Errota, Ilunbe, Zubiaurre, Santu Enea Berri, Zañarrene, Komentzanea Aundi, Arpidegi Floreaga, Aldapa, Sari Goikoetxe, Eskerrenea, Intxaurreta, Intxaurreta Txiki, Etxe Alai, Txaramunto, Gizarte Zerbitzuak

Udalak 20 plaka berri jarriko ditu datozen egunetan: Troia (Kalezar), Aintziagar (Aginaga), Lertxundi (Zubieta), Arratzain (Kalezar), Tellegindegi (Aginaga), Mapillerreka (Aginaga), Aldatsa (Txokoalde), Larbain (Kalezar), Etxeberritxiki (Zubieta), Karatxea (Txokoalde), Errementaldegi (Aginaga), Fermindegi (Aginaga), Pelaiogenea (Kalezar), Txakurtxulo (Zubieta), Alamandegizar (Zubieta), Barrenetxebekoa (Zubieta), Goiz Eguzki (Kalezar), Ibarrolaundi (Kalezar), Olarriondozar



PLAKA BERRIETAKO BAT ZUBIETAKO TXAKURTXULON IPINI DUTE.

(Usurbil), Irubietaberri (Zubieta).

Baserrien izenak ezagutarazteaz gain, hauen egokitasunean ere erreparatu du Euskara Zerbitzuak. Zentzu horretan, esan behar da plaka hauek Euskaltzaindiaren "bedeinkapena" jaso dutela.

Liburuaren Eguna ospatu zen udal liburutegian



Apirilaren 23an ospatu zen Liburuaren Nazioarteko Eguna. Aitzaki ahonekin, Oihulari Klown taldeko ipuin kontalariak udal liburutegitik pasa ziren. 6-9 urte bitarteko haurrek adi-adi jarraitu zuten kontakizuna.

Udalaren oharra

Udala, bi urtetik behin banatzen den herriaren plano batean dabil lanean. Plano hau doan banatuko da herritarren eta bisitarien artean, bere bidez herriari buruzko ezagupena ahalik eta gehien zabaltzeko. Aldi berean, herriko merkatariei eta industriari beren zerbitzu eta gaiak eskaintzeko tresna eskaintzen zaie.

Horretarako, hurrengo egunetan pertsona baten bisita izan dezakete herriko enpresek publikazio horretan beren publizitatea jartzeko aukera eskeini.

Horrez gain, plano horretan azalduko den informazioa ahalik eta osatuen egon dadin (herriaren deskribapena, historia, turismo erakargarritasuna...) edozeinek bere ekarpena egin dezake telefono zenbaki honetara deituz: 699 530 324 (Gorka)

Usurbilgo Udala

Menuak astean zehar eta

ZENDOIA taberna

Kale nagusia 35

Tel. 943374021

asteburutan menu bereziak



K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



K n k l

- L n t z r
- G z n z k n r r p
l l u r n t z k
- F i x r k h i r
l u z u n k

Zubiaurrenea, 3

3 3 1 7 7

Gipuzkoako osasungintzako hainbat langile errauste-plantaren aurka azaldu dira

Gipuzkoan bi errauste-planta ipini gahi dira. Lehena, Txingudiko Jaizubiako lurretan. Bigarrena, oraindik zehaztu ez den kokaleku batean. Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainean jakinaraziko du bigarren plantaren kokalekua. Urnietarrak izan ziren aurka azaldu ziren lehenak. Ondoren iritsi dira Zubietako herritarren protestaldiak. Gaia pil-pilean da eta, honakoan, Txingudi inguruko sendagile talde baten balorazioa jaso nahi izan dugu.

Hiri hondakin solidoei irteera eman asmoz, errauste-planten aldeko apostua egin du Foru Aldundiak. Errauste-planta bat Txingudiko Badiaren beharrak asetu-ko lituzke; eta bigarrenak, Gipuzkoako gainontzeko herrienak. Erraustearen inguruan eztabaida bizia piztu da. Honakoan, Txingudi inguruko osasungintzako langileen balorazioa jaso nahi izan dugu. Antza denez, Txingudiko errauste-planta Irungo eta Hondarribia aldeko herri-guneetatik hurbil ipiniko da. Bertako osasungintzako langileek honako idatzi hau eman dute argitara. Gaiak gutako askoren jakinmina piztu duenez, orri honetan jasotzea egoki ikusi dugu:

“1.- Zabor errausketa-plantak arrisku egiaztatu eta agerikoa dakarkiotu plan horien inguruan bizi direnen osasunari. Medikuntza arloko ikerketa zientifiko zorrotzen arabera, zaborren errausketa-rekin (gasekin eta hondakinekin) zerikusia duten patologien kopurua nabarmen handitzen da, 10 km-rainoko tartean.

2.- Zaborrak erraustean, dioxinaz, furanoz eta metal astunez osatutako gasak sortzen dira, baita hondakin solido oso toxikoak eta ezagutzen ez diren beste

batzuk ere.

3.- Dioxinak eta furanoak minbizi sortzaile dira; hau da, hainbat organotan minbizia sortzeko gaitasuna duten elementuak dira. Oso gai egonkorak eta suntsitzen zailak dira, eta biometaketaren bidez gizakiaren gorputzean pilatzeko joera dute.

4.- Gizakiarentzat kalterik eragiten ez duten dioxina eta furano gutxieneko mailarik ez dago.

5.- Errausketa plantak barreiatutako gasek asma eta biriketako eritasunen patologiak areagotzea ekarriko dute.

6.- Errausketatik sortutako metal astunek (merkuriok, kadmioak...) kalte konponezinak eragiten dituzte Nerbio Sistema Zentralean, eta patologiak sorraz ditzakete umekietan.

7.- Haurrak dira arrisku handiena dutenak, horiek igaroko baitute denbora gehien gai kaltegarrien eragin gunean. Kaltea gertatu eta handik urteetara hasiko dira ondorioak sumatzen. Eta ordurako berandu izango da... baita errausketa-planta ixten badute ere.

8.- Errausketa-planta hauen kontrol sisteman akatsen bat gertatuz gero, hurbileko herritarrek oso substantzia toxikoa barneratzeko arriskuan egongo dira, aurretik zenbatu ezin den neurrian, gainera.

9.- Gure familiei eta pazienteei, izadian berez ez dauden eta errausketa-planta batean zaborra erretzearen ondorioz sortzen diren gaiek eragin ditzaketen arrisku larriak ohartarazteko ardura dugula uste dugu.

Errausketaren ondorioz, hondakinen gai toxikoak airean, lurrean eta uretan barreiatzen dira. Eguratsa zabortege gisa

erabiltzearen ondorioz, gai kutsagarriak ingurunean barreiatuko dira, eta kate trofikoaren bidez, elikagaiak eta gizakia kutsatuko dituzte.

Ez dugu nahi gure seme-alabak minbiziaren eta beste patologia batzuen ikerketan erreferentzia izaterik, munduko beste toki batzuetako medikuntza arloko biltzarretan eta foroetan halako eritasunen adibide gisa jartzeko”.



Errausketa sistema hizpide Aginagan

Urnietako Arnasa taldeko Mikel Izagirrek errauste-planten inguruko hitzaldia eskaini zuen Aginagako Eliz Etxean. UHL plataformak antolatu zuen deialdiak aginagatar eta zubietarren arreta piztu zuen.

UHL plataformak banatu duen idatziaren arabera, errauste-sistema arriskutsua da osasunerako. Minbizia eta biriketako arazoak eragiten omen ditu. Horregatik, Europako herri askotan errauste-plantak ixten hasi direla dio UHLk.



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etz st k l , 3
T f 3 3 1 1



Urtinea

I r k - I r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

2003ko memoria onartu zen NOAUA!ko Batzar Orokorrean

Bigarren deialdian izan bazen ere, apirilaren 24an egin genuen NOAUA!ko bazkideon ohiko batzarra. Lehenik, 2003ko memoria eta balantzea plazaratu zuen Zuzendaritza Batzordeak. 2004ko egitasmoak eta aurrekontua aztertzeko aukera ere izan genuen aipatu batzarrean. Egitasmo horiek guztiak gutxinaka aipatuko ditugu NOAUA!ko datozen zenbakietan.

Nahiz eta batzarrera azaldu ez, gogoan izan zuen esanetara dagoela zuzendaritza batzordea. Halaber, taldean parte hartzeko gogoz bazaude, elkarteko atekak parez pare irekita dituzu.



UDARREGI IKASTOLAN EGIN GENUEN
NOAUA!KO BATZAR OROKORRA.



“ZAZPI GEZUR TXIKI” UDARREGIN.

JOSERRA SENPERENA ETA RAMON AGIRREK SAID ATSEGINA ESKAINI ZUTEN APIRILAREN 24KO GAUAN. 100DIK GORA LAGUN BILDU ZIREN “ZAZPI GEZUR TXIKI” SAID UMORETSUA ENTZUTERA.

PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS 2004

Udaberriarekin batera iritsi ohi da Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua. Txan Magoa izango da lehen gonbidatua. Aginagan izango da maiatzaren 15ean., arratsaldeko 17:30ean hasiko den saioan.

Maiatzak 15, larunbata
17:30ean, Aginagan
Txan Magoa

Maiatzak 29, larunbata
17:30ean, Santuenean
Tailerrak

Ekainak 5, larunbata
17:30ean, Kalezarren
Txatxilipurdi Elkartea (karaokea)

Ekainak 12, larunbata
17:30ean, Zubietan
Urpe (Herri jokuak)

Ekainak 18, larunbata
18:00etan, Kaxkoan
Takolo, Pirritx eta Porrotx


NOAUA! TALDEA, GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO TOPAKETAN

Herri kirolak sustatu asmoz, Herri Arteko Euskal Joko Topaketak antolatu dira. Lehen edizioan, Gipuzkoako 16 herri hartuko dute parte, tartean, gureak. Andoainen egingo da lehen saioa, maiatzaren lehenean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Goiko Plazan.

Usurbildarrek NOAUA! izena aukeratu dute. Partehartzaileak hauek izango dira: Kepa Unanue, Mikel Soroa, Mikel Aranburu, Andoni Udabe, Oidui Usabiaga, Aritz Zubiaur, Leire Unanue, Aroa Alkorta, Lur Etxeberria, Izaro Aizpurua, Idoia Udabe, Amaia Martinez. Ordezkoak: Mikel Arrona, Iker Manterola, Aitziber Aranberri.

Zorte on lagunok!

Inkestak on line !



Eman ezazu zure iritzia www.noaua.com web orrialdean

Zizurkil eta Usurbil, Andatza bidean

Iazko itxura izango du aurtengo Andatza Eguna. Maiatzaren 2an, Zizurkil eta Usurbil lotuko ditu mendizale festa honek. Bi herrien arteko lagungiroa sustatzeko aukera berria. Udarregi Ikastolako Mendi-taldeko kideak 9:30ean irtengo dira herriko frontoitik.

Andatza Mendizale Elkartea, Zizurkilgo Ziotza Kirol Elkartea eta bi udalerrietako udal ordezkariak antolatu dute aurtengo festa. Hori bai, eguraldi txarra egiten badu, egitaraua Zizurkilgo frontoian garatuko da. Kasu horretan, antolatzaileek autobusa jarriko lukete Zizurkildik Usurbila.

9:30EAN FRONTOIAN

Udarregi Ikastolako Mendi-taldeak ere, Andatza Egunean parte hartzeko deia egin du. Ikastolako gurasoen artean osatu da



EA IAZ EGIN ZUEN EGURALDIA AURTEN ERE EBITEN DUEN.

talde hau eta hilabetero txango bat egin ohi dute. Maiatzekoak, Andatzako gaina izango du helburu.

Herriko frontoian bilduko dira, goizeko 9:30ean. Izena ematea ez da beharrezkoa, baina norberak bere bazkaria eraman beharko du.

Hori bai, igoera bide motzenetik egingo dute Udarregi Ikastolako Mendi-taldekoek.

ANDATZA EGUNA

MAIATZAK 2, IGANDEA

11:00.- Hamaiketako. Salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00.- Herri kirol eta jokoak, haurrentzat eta helduentzat.

14:00.- Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Goizean zehar, erromeria trikitalari eta bertsolariekin.

Antolatzaileak: Zizurkilgo Udala, Ziotza Kirol Elkartea, Andatza Mendizale Elkartea, Usurbilgo Udala.

Aspaldiko garaipenak gogora ekartzeko afaria

Kontxako hondartzan lehiatu ohi zen taldea duela hiru urte desagertu zen. Futbol talde horren ibilbidea 2001. urtean amaitu zen. Orain, Kontxan ibilitako lagun horietako batzuk, bazkari batean bildu nahi dute. Aginaga Sagardotegian jarri dute hitzordua, maiatzaren 8ko eguerdian.

Kontxako txapelketaren hasieran, faboritoen artean ziren herriko futbolariak. Izan ere, garai bateko Bingo Londres taldeak kopa eta liga txapelketa asko irabazi baitzituen. Haren segidan etorri zen Aginaga Sagardotegiko taldeak ere, lan txukuna egin zuen.

Aspaldiko garaipenak eta pasadizoak gogora ekarri asmoz, bazkari baterako

deialdia egin dute. Bazkaria Aginaga Sagardotegian egingo da, maiatzaren 8an.


Batzuen eta besteen arteko partidak, jakinmina piztuko luke, ezta? Akaso beste batean biltzeko aitzakia izan daiteke hori. Maiatzaren 8an bazkarira joan nahi duenak, behintzat, aurretik izena eman beharko du Txiribogan.



1992ko irudia



2001ko irudia



Udarregi euskal soin jardueren jabe

Honako hiruhilabete honetan zehar, gure HDBHko ikasleak Kutxak antolaturiko eta Ikaspilotak kudeaturiko Euskal Soin Jardueretan partehartzen ari dira. Euskal Soin Jarduera hau herri-kiroletan eman ohi diren hainbat eta hainbat probaz osatuta dago, besteak beste, soka-tira, txingak, ingudea, giza-proba, etab...

Ekitaldi hauek ikastetxe ezberdinen arteko topaketa moduan zonalde edo bailarako antolatuta daude, ondoren bailara bakoitzeko txapelkunak bilduz, Gipuzkoako Txapelketa ospatu ahal izateko.

Udarregi ikastolako ikasleak ere, euren herri-kiroletarako trebeziaren arrastoa uzteko aritu dira lehian, eta bai aritu ere, momentuz bi talde sartu baitituzte Gipuzkoako Txapelketarako. Honela, badirudi, gaur arteko lokots-biltzaileak, bertso, zakusalto, tiraldiak, etab ez direla alferrikakoak izan. Animo neska-mutilak, eutsi gogor!



BERTSOA:

Adibide gisa, hona hemen gure ikasleek topaketan bat-batean botatakoa:

Hementxe gaude Zarautz herrian
Bertako kiroldegian
Urtarrilaren hogeita zazpi
Honako egun honetan
Jolasten hasi ta bi irabazi
Bai suerte hona benetan
Ta hemen gaude bertso honekin
Hamar puntu lortu nahian.

Hementxe gaude euskal jokutan
Ohiturak ez galtzekotan
Lokotsak dira famatuena
Ta ondoren soka-tira
Giza proba da gogorrena
Ta zakua errezena
Dantzarekin bukatuko da
Euskal Herriko ohitura.




Kafe
berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70

I n t e n n - e r m u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

NOAUA!ko LEHIAKETA!!



"AXIERIS JOKU OLINPIKOEIAN"
euskarazko komikia

"OHIANEKO ANIMALIAK"
liburu eranskailduna


Joxantxio Ormazabal en
"MARGOLIN" liburua

"FELIX AIZPURUA" II. literatura
lehiaketaren inguruko liburuxka

"IBAI BASOAN" ipua
"GURUTZEGRAMAK: MENDIA"
eranskailuak eta guzti!
Xabier Euxaniz en
"PATXIKI" liburua
"FELIX AIZPURUA" II. literatura
lehiaketaren inguruko liburuxka



Txetxo txikientzat, bi liburu sorta hauek zozketatuko ditugu kantu ezagun honetan falta diren hitzak ondo betetzen dituztenen artean.



Tirantzenak bidaltzekoazken eguna **MAIATZAK 9**
Noaua hamaboskaria, Bordsaberri 3 Eguzkitzaldea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua Kultur Elkarteko buzoian edo
e-postaz: erreklaxioa@noaua.com

177. lehiaketako erantzunak hauek dira:
1. Zein da Noaua hamaboskariko 19. zenbakiko azalcan agertzen den letzia? b) **ANDATZA**
 2. Eta zure ustez zer ari dira ospatzen bertan agertzen direnak? d) **ANDATZA EGUNA**

Irabazlea **ERROMAN MANTEROLA** (Atxegalde) izan da. Belandi, Sen/Hendrik Roever eta Anari/Petti ren musika ed ak irabazi dituzu. Jaso ezazu saria Noauako egoitzan. **ZORIONAK!**

"Gipuzkoa Zure Esku" mahai-jokoa ezagutzen al duzu?

Elhuyar edizioak argitaratu du "Gipuzkoa zure esku" izeneko mahai-jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza paregabea.

Joko honen hainbat ale jaso ditugu gure irkaurleen artean banatzeko. Martxoko zozketa Haritz Lizarralde irabazi zuen. Apirilean, Jon Mikel Azpiazu izan da zortea alde izan duena. Zorionak eta gainontzekoei, animo!

Beste mahai-joko gehiago ditugu-eta. Aldameneko galderari erantzun egokia bilatu eta akaso maiatzeko jokoa zurea izan daiteke. Gogoan izan erantzunak bakarrik e-postaz jasoko ditugula: erreklaxioa@noaua.com.

MAIATZEKO GALDERA

Gipuzkoako babarrun ezagunenak zein herritakoak dira?

Erantzuna: _ _ _ _ _

(erreklaxioa@noaua.com helbidera bidali)



JON MIKEL AZPIAZUK (ESKUBIAN) IRABAZI DU APIRILEKO MAHAI JOKOA. ZORIONAK!

TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Opatarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 943 36 04 66

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	11.08	11.24	11.39
10.17	10.33	10.50	11.22/		11.47/
10.47	11.03	11.22	12.08	12.24	12.39
11.51	12.05	12.20	12.38*	12.54*	13.09*
12.17*	12.33*	12.50*	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38*	13.54*	14.09*
13.17*	13.33*	13.50*	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38*	14.54*	15.09*
14.17*	14.33*	14.50*	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38*	15.54*	16.09*
15.17*	15.33*	15.50*	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38*	16.54*	17.09*
16.17*	16.33*	16.50*	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38*	17.54*	18.09*
17.17*	17.33*	17.50*	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38*	18.54*	19.09*
18.17*	18.33*	18.50*	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38*	19.54*	20.09*
19.17*	19.33*	19.50*	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	21.08	21.24	21.39
20.21/		20.48/	22.07/		22.32/
20.47	21.03	21.20	22.38	22.54	23.09
21.47	22.03	22.20			

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Goardiako farmaziak

- Apirilak 30, ostirala**
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani
- Maiatzak 1, larunbata**
E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 2, igandea**
E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 3, astelehena**
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain
- Maiatzak 4, asteartea**
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain
- Maiatzak 5, asteazkena**
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Zatarain Elizondo 6 Andoain
- Maiatzak 6, osteguna**
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain
- Maiatzak 7, ostirala**
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20 Andoain
- Maiatzak 8, larunbata**
E: Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Maiatzak 9, igandea**
E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Maiatzak 10, astelehena**
E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain
- Maiatzak 11, asteartea**
E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Maiatzak 12, asteazkena**
E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Maiatzak 13, osteguna**
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Maiatzak 14, ostirala**
E/G: Acha-Orbea, Hipodromo etorbidea 6 Lasarte
- Maiatzak 15, larunbata**
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
E/G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
- Maiatzak 16, igandea**
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
- E: Egunez G: Gauzez E/G: Egunez eta gauzez*

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40	09.05	09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.15	17.40
18.00	18.25	18.35	18.55	17.45	18.05		18.30
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.20	19.25**		18.45	19.05		19.30
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.15	19.40
19.40		20.05	20.25		19.30	19.35	20.00
20.00	20.20	20.30		19.45	20.05		20.30
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.20	21.25	21.45	20.45	21.05	21.15	21.40
21.00	21.25	21.35	21.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.15	22.35	22.45	23.05	21.45	22.05	22.15	22.40
22.00	22.25	22.35	22.55		23.15	23.35	00.00
22.30	22.55	23.05	23.25	01.15	01.35		02.00
00:00		00.25	00.45	03.15	03.35		04.00
02:00		02.25	02.45	05.15	05.35		06.00
04.00		04.25	04.45				
06.00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator / Asteburutan
Soilik / Larunbat lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

- ASTEGUNETAN**
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45
- LARUNBATETAN**
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
- JAI EGUNETAN**
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)
- * Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Maiatza						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldedia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldikaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen, konpartitzeko. 696993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 902762.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi balkoi dituen etxebizitza salgai. San Esteban kalean. 943 363 259.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen, Urbil merkatal-zentruaren ondoran 420 m²tako lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokituia, lokal argia, ordenagailu-sarea instalatua, ordenagailu askorentzako hargunea. Interesatuak deitu: 943-363040

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskeintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko (urteetako esperientzia). Interesatuak deitu: 626641155 Mariaje.
- Jatetxeetako platerak garbitzeko edo antzeko lanetarako norbait falta bazaizu deitu: 626641155 Mariaje.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei ieza dazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Monopatina galdu dugu, Aginagan edo Zubiaurrenea kalean. Aurkitu baduzu, deitu mesedez 943 36 58 50 telefono zenbakira.
- Ume baten txamarra gorri bat galdu da Kaxkoan. 943 360 659.
- Otsailaren 26an kolpea eman zidaten kotxean, Bordaberri Kalea eta Artzabalgo etxeren artean aparkatuta zegoen Renault Espace berdean. Argibiderik baduzu deitu ieza dazu mesedez: 943 36 32 90.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Kaxkoan. Topatu baduzu deitu 943 360643 telefono zenbakira.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). 943 36 27 79.
- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefonora.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 (Arantxa)
- Euskara ulertzen eta hitz egiten ikasi nahi baduzu, asteburuetan eta oporrotan lagun diezazuket. (Esozein adin eta ordutegi. Haurrekin esperientzia. Taldeei diru -errestasunak.). 665732636 / 943363943 (Itziar).
- Ingelera eta euskara. Neska arduraduna eskaintzen da klaseak emateko. Izatez eskalduna eta eskola ingelesean ikasia. Edozein adin eta ordutegitan erakusteko prest. 677656565 / 943313517 (Ane).

Zorionak Malen!

Apirilaren 27an lau urte beteko dituen gure etxeko sorgintxoari, muxu handi bat Jon Mikel, aita eta amaren partetik. Ondo pasa!



Zorionak Iratxe eta Asier!

Zorionak bioiiii, zorionak betiiii, zorionak Iratxe eta Asieeeeeer, zorionak betiiiiii! Maiatzaren 10ean ondo ondo pasa, bale? Muxu asko Josune, Oskar, Patxi, Malen, Olatz, Xabier, Txingu eta Zaloaren partez.



JAIOTZAK

Lander Iribar Zumeta

2004ko apirilaren 5ean.

Unai Martin Telletxea

2004ko apirilaren 7an.

June Lopez Bastida

2004ko apirilaren 17an.

HERIOTZAK

Angela Salsamendi Sagarzazu

2004ko martxoaren 27an.

Maria Pilar Arantzasistrokei Beldarrain

2004ko apirilaren 9an.

Juste Errekondo Aizpurua

2004ko apirilaren 19an.

Juan Miguel Agirre Izagirre

2004ko apirilaren 21ean.

* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.

ISU S.L.
Tampografía serigrafía
Tel: 943 371 954 Fax: 349 376 551

ITURGINTZA - Gasa - Berokatuza

J. r z

Bizkarra 1, 1.esk. 37 29 37 - 659 602789

ITURGINTZA

J SE NGU EN

TEL 3 3 72

ARRAINDEGIA
PELLO
Tel: 943 371 954 Fax: 349 376 551

M N CENILL

kr nbur t
ll l u k
r z t z - l u k
ntur - l u k r h r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

PATRI

JATETXEA

- Eguneroko menuak
- Plater berberak
- Ogintzetak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

N • I

ll n

MIST

S l r un, l z
m k! t m n kur

Zu urr n , 5 - 33 1 51

Agenda !



MAIATZAK 2, IGANDEA

- Andatza Eguna 2004.

MAIATZAK 3, ASTELEHENA

- Odol-ematea herriko Osasun Etxean.
 Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

MAIATZAK 4, ASTEARTEA

- "Gazteri berria, kantagintza berria" hitzaldia, Belen Oronoz. 19:30etan, Udarregin.

MAIATZAK 8, LARUNBATA

- Txalapartariak eta albokariak kalean zehar ibiliko dira, arratsaldeko 18:30etan hasita.
 - Gaueko 22:30etan, Oiardon, Lluís Llach.

MAIATZAK 14, OSTIRALA

- "Amaren Alabak" kantu ikuskizuna.
 Udarregi aretoan, 20:00etatik aurrera.

KzGunea

OINARRIZKO INTERNETA (20 ordu)

Maiatzak 3-14, goizeko 11:00etatik 13:00etara (euskaraz).

Maiatzak 3-14, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara (euskaraz).

NAGUSIWEB (10 ordu)

Maiatzak 17-21, 18:00etatik 20:00etara (euskaraz).

Maiatzak 24-28, goizeko 9:00etatik 11:00etara (gazteleraz).



Musikaren txokoa !



Rock doinuen bidetik dator Fjord taldearen estraineko diskoa

Etsaiak, Ekon eta Su Ta EGar taldeetan aritutako lau kidek osatzen dute Fjord taldea. Otsaila eta martxoaren artean, elurrez inguratuta egon dira Azkarateko Katarain estudioan estraineko diskoa grabatzen, Jonan Ordorika eta Angel Katarain teknikariekin. Eurekin batera Jimmy laguntzen ekoizpen lanetan. Mikel eta Keu Etsaiak taldean aritu ziren luze,



Ibanek Su Ta Garren astindu zituen baketak Borxaren ondoren eta Juan Ekon taldeko fundatzailea izan zen. Talde berri honetan rock doinuak dira nagusi, rock indartsua, mamitsua eta sendoa. Melodiak baztertu gabe, ñabarduraz betetako erritmoak. Diskoa kalean dago honezkerok eta maiatzetik aurrera zuzenekoak eskaintzen hasiko dira.

Egin kontu !

Kalean da Seaska eta Nafarroako Ikastolen aldeko kantu liburuxka

Irudian duzue ISeaskak argitaratu duen argitalpen berria. Kantu liburuxka honetan euskal kantu aipagarrienak jaso dira. Patrikan emateko modukoa denez, guztiz praktikoa da; afalosteak

girotzeko argitalpen egokia. Urteroko egutegia bezalaxe, kantu liburuxka hau ere diru iturri moduan argitaratua izan da. 2,60 euroko prezioa du eta Ikastolan eta Bordatxo tabernan erosi daiteke.



Maiatzaren 15ean, 1977ko kintoen bazkaria

1977an jaioakoak Errastin biltzeko asmotan dabilta. Bazkaria maiatzaren 15ean, larunbata, egingo da.

Izena aurretik eman beharra dago, maiatzaren 13a baino lehen, Benta Tabernan. Sagardotegikoa izango da menua (21euro).



L T ILL E
ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K

IZTITX K L.F. (3) 3 2 35-3 33
 F.H.F. M I 21



ZUMET J TETXE

Tx k 1 / 1 1 3 27 13

ZUMET MENU K

(Gutx n z 21 un nez f)
 - Etx k h t f - r n s t
 u r r z
 - Its sk nts l h z r truf z r z
 - Z u x n urr z t r k t s s k
 s lts z
 - s z u n t t u r , n t k l
 r r z h r s lts t n
 - Etx k z k n uruk n st n
 - t k f

e z 27, 5 ur (rts n k)

www.noaua.com

Informazio interesgarriena gure web gunean

Eguraldi iragarpena, lan merkatua,
hemerroteka, agenda, albisteak,
inkestak, foroak, osasun zerbitzuak,
NOAUA! aldizkaria...

The screenshot shows a web browser window with the URL <http://www.noaua.com/>. The page layout includes a navigation menu on the left with options like 'Berriak', 'Agenda', 'Artikuluak', and 'Tartekak'. The main content area features several news items:

- Istripua Galardin** [2004/03/23]: Article about a car accident in Galardi.
- Inaugurazio-ekitaldia Udaletxean** [2004/03/23]: Article about a inauguration ceremony at the town hall.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko deialdia egin du Udalak** [2004/03/22]: Article about a call for tenders for home care services.

On the right side, there is a calendar for the month of March 2004, with the 23rd highlighted. Below the calendar is an 'Agenda' section listing events for the following days: March 25 (Agenda), March 26 (Agenda), March 27 (Agenda), March 28 (Agenda), March 29 (Agenda), March 30 (Agenda), and March 31 (Agenda).

Eta orain, edizio jarraituan

ERRENTA AITORPENA, EGIZU EUSKARAZ!

- >>> **Errenta aitorpena:** Apirilak 26 - ekainak 25
- >>> **Mekanizatua:** Donostia, Antso Jakituna hiribidea, 9
- >>> **Telematikoa:** www.gipuzkoa.net
- >>> **Info:** 902 100 040



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskara Batzordeak